



**Kontratuen Inguruko Errekurtsoen
Administrazio Organoa**
Órgano Administrativo
de Recursos Contractuales

**EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO
KONTRATUEN INGURUKO
ERREKURTSOEN ADMINISTRAZIO-
ORGANOAREN MEMORIA**

2015. URTEA



AURKIBIDEA

I.- MEMORIAREN XEDEA

II.- OSAERA ETA BALIABIDEAK 2015. URTEAN ZEHAR

II.1.- OSAERA

II.2.- AURREKONTUA

III.- JARDUERA INSTRUMENTALA 2015. URTEAN ZEHAR

III.1.- KEA Oren WEBGUNEA

III.2.- BALIABIDEEN KUDEAKETARAKO PROGRAMA INFORMATIKOA

III.3.- PRESTAKUNTZA-JARDUERA

III.4.- DIBULGAZIOZKO JARDUERA

IV.- 2015. URTEAN ZEHAR KEA Oren EBAZPEN-JARDUERARI BURUZKO DATUAK



I.- MEMORIAREN XEDEA

Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoa (aurrerantzean KEAO) 2011ko ekitaldirako Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 5/2010 Legearen zortzigarren xedapen gehigarriaren bidez sortu da, bere eskumeneko eremu objektiboan eta subjektiboan sartutako kontratu publikoetan hartutako erabaki jakinen legezketasuna kontrolatzeaz arduratzen den administrazio-organo gisa. Horregatik, bere eskumenen esparruan, horrelako organoek dituzten berezko ezaugarriak ditu, hala nola bere eskumenak erabiltzeko independentzia funtzionala (lotura hierarkikorik eza edo inoren aginduak bete behar ez izatea), titularraren espezializazioa eta agintaldiak irauten duen bitartean titularra ezin aldatua.

Testuinguru horretan, urteko memoriak 2015ean zehar KEAOk garatutako jardueren inguruko informazioa botere esleitzzaileei eta eragile ekonomikoei ematea du xede, baita garrantzitsuenak diren pronuntziamenduen berri ematea ere, bai gai baten inguruan epaia ematen den lehen aldia delako, bai aurretiko pronuntziamenduetatik urruntzen delako. Beste alderdi batean memoriak agindu zaion zeregina baliatzeko giza- eta ekonomia-baliabideak ikusgai uztea du xede.



II.- OSAERA ETA BALIABIDEAK 2015. URTEAN ZEHAR

II.1.- Osaera

Bost pertsonek osatzen dute KEAOk lantaldea:

.- Organoko titularrak.


.- Aholkularitza juridikoaren bi arduradunek.

.- Organoko Idazkaritzaren ardura duen aholkulari juridiko batek.

.- Administrari batek.

2015. urtean, batzuetan, sei hileko aldi batean, profil informatikoa duen administrari baten laguntza baliatu da. Egitekoa: baliabideen kudeaketarako tresna informatikoa eta web-orria ezartzen laguntza ematea.

Hona hemen egitura horren organigrama:





II.2.- Aurrekontua

KEAO kontratazio-arloan eskuduna den sailari atxiki dago, egun Ogasun eta Finantza Sailari, eta bere jarduera, batez ere programa informatikoaren eta web-orrialdearen mantentzearen ziozkoak, garatzeko baliabide materialak sail horren aurrekontuaren konturakoak dira.

Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontuetan KEAOk langileen gastuak berariaz jasota daude eta 2015ean guztira 346.157€ izan dira, 09 zerbitzuko 6114 aurrekontu-programako 5. atalaren kontura.

Diru-sarrerei dagokienez, KEAOk 2015ean bere jardueraren ondotik 2.000 € sortu ditu, errekurtoa jartzean ausarkeriagatik edo asmo txarragatik ezarritako isunen ondorioz, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen testu bategineko 47.5 artikuluan (aurrerantzean SPKLTB) eta uraren, energiaren, garraioaren eta posta-zerbitzuen sektoreetako kontratazio-prozedurei buruzko urriaren 30eko 31/2007 Legearen 106.5 artikuluan (aurrerantzean ESKPL) xedatutakoarekin bat etorritik.

III.- JARDUERA OSAGARRIA 2015. URTEAN ZEHAR

III.1.- KEAoren webgunea

KEAOk webgune bat du Euskadiko kontratazio publikoaren atarian, <http://www.contratacion.euskadi.eus> helbidean; horren bidez, botere esleitzailleekin eta eragile ekonomikoekin harremanetan jartzen da eta ebazpenak argitaratzen ditu.

Ebazpenen bilaketa hainbat modutan egin daiteke: bai ebazpenen agirietan hitzen edo esaldien bilatzaile batera sartuz, bai urteka eta zenbaki korrelatiboaren arabera ordenatuta dauden ebazpenak biltzen dituen zerrenda



batera sartuz edo irizpide tematikoen arabera antolatuta dagoen zerrenda baten bidez.

III.2.- Baliabideen kudeaketarako programa informatikoa

Kasuan kasuko deuseztasun-errekurtso berezien, -erreklamazioen eta -kontuen prozedurak kudeatzeko, KEAOk bere webgunean aplikazio informatiko bat dauka (Y96A) eta honako funtzio hauek betetzen ditu:

.- Botere esleitzaillei dagokienez

Botere esleitzailleek konfiantzazko inguru batean aplikazio informatikoaren bidez kontratazio-espeditentea, SPKLTBko 46.2 artikulua edo ESKPLko 105.2. artikulua aipatzen duten txostena eta errekurtsoa edo erreklamazioa helarazten dute, kontratazio-organoaren aurrean jarri denean, eta espedienteen izapidea zer egoeratan dagoen ikus daiteke. Halaber, botere esleitzailleak aplikazio informatikoan KEAOn aurrean beren izenean jardun dezaketen langileak gehi, ken eta alda ditzake.

.- Errekurtsogileari eta interesdunei dagokienez

Eragile ekonomikoek telematikoki aurkez ditzakete KEAOn aurrean kontratazioaren, erreklamazioaren eta deuseztasun-auzien alorreko errekurtso bereziak, baita alegazioak ere, prozeduretan interesdun agertzen badira. Gainera, espedienteak izapidetzeko prozedura zer egoeratan dagoen ikus dezakete. Jakinarazpenak telematikoki egingo dira, salbu eta errekurtsogileak edo interesdunak posta bidez jaso nahi dituztela adierazi badu.



III.3.- Prestakuntza-jarduera

2015. urtean zehar KEAOk kontratazio arloko errekurso bereziarekin zerikusia duten honako alderdi hauei buruzko bi ikastaro eman ditu:

1.- Inpugnazio-sistemen jatorria, izaera eta xedeak Europar Batasunaren esparruan. Errekurtsoen zuzentzarauen aldaketa, errekurtsuen zuzentzarauen aplikazioari dagokionez Europako jurisprudentziarik nabarmenena aipatuz.

2.- Inpugnazio-sistemak Espainiako araudian. Bilakaera ohiko administrazio-errekurtsoen tradiziozko esparrutik kontratazio-arloko errekurso berezia ezarri arte.

3.- Kontratazio-arloko errekurtsuak ebazten dituzten organoak: ezaugarriak.

4.- Euskal Autonomia Erkidegoko Errekurtsoen Administrazio Organoa: Eremu materiala eta eremu subjektiboa.

5.- Prozedurarekin zerikusia duten gaiak.

6.- Mahaigaineratutako gaien mamiarekin zerikusia duten alderdiak.

HAEEK antolatutako ikastaroetako lehenengoa Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioaren kontratazio-teknikariei eta lotutako sektore publikoari zuzendu zitzaien eta Gasteizen, 2015eko martxoaren 9an, 16an eta 23an izan zen. Bigarrena, aldiz, HAEEK EUDELEkin batera antolatu zuen eta tokiko administrazioen kontratuak prestatzen, izapidetzen eta esleitzen tartean dauden prestakuntza juridikoa duten langileei zuzendu zitzaien eta Bilbon, 2015eko apirilaren 15ean, 16an eta 17an izan zen.



III.4.- Dibulgaziozko jarduera

2015ean KEAren ebazpen garrantzitsuenak bildu dira, jarduera 2011n hasi zuenetik 2014aren amaierara arte. Ebazpenak KEAren webgunean jasota dauden ebazpenen bilaketa sailkatzeko irizpideen arabera taldekatu dira, bakoitzaren edukiaren laburpen txiki bat aurretik jarrita. Agiri hori interesdun guztien esku jarri da KEAren webgunean, "Memoriak eta doktrina" atalean.

IV.- 2015. URTEAN ZEHAR KEAren JARDUERARI BURUZKO DATUAK.

IV.1.- Errekurtsoen eta emandako ebazpenen guztizko kopuruak, urtearen arabera

Honako hau izan da 2015en erregistratutako errekurtsoen guztizko kopurua, baita emandako ebazpenen guztizko kopurua ere:

2015. URTEA

■ Errekurtsoen kopurua, guztira: 168

2015eko urtarrilaren 1aren eta 2015ko abenduaren 31ren artean jarritako errekurtsoak 2014an jarritakoak baino bat gutxiago izan dira (guztira 169 errekurtso erregistratu ziren).

■ 2015ean emandako ebazpenen kopurua, guztira: 146


2015ean ebatzitako gaien kopurua handitu egin da (% 8,95). Izan ere, aldi berean, 2014an baino 12 ebazpen gehiago eman dira.



IV.2.- Errekurtsoen ehunekoak, botere esleitzzaileen arabera


"Sozietate publikoen" atalean, tokiko sektorekoak zein Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioekoak ageri dira. "Beste administrazio publiko batzuen" atalean, berriz, EHU dago funtsean, baina badira beste erakunde batzuk, hala nola Legebiltzarra eta administrazio batek baino gehiagok eratzen dituzten partzuergoak.

Hona hemen, taula batean, zenbait botere esleitzzaileen kontra aurkeztutako errekurtsoen ehunekoak.




IV.3.- Errekurtsoen ehunekoak, kontratu-motaren arabera

Ondoko grafikoan, kontratu-motaren arabera daude sailkatuta errekurtsoen ehunekoak. Zerbitzu-kontratuen aurka aurkeztu dira errekurtso gehien, nabarmenki (errekurritutako kontratu-moten %71) eta, jarraian, askoz ere gutxiago, hornidura-kontratuen aurka (%24). Era berean, aipatzekoa da obra-kontratuen aurka aurkeztutako errekurtsoen kopuru eskasa.



IV.4.- Ehunekoak errekurritutako egintzen arabera


Errekurtsoek errekurritzean gehien jorratzen duten gaia kontratuaren esleipenari buruzkoa da (errekurritutako egintzen % 48); iragarkien, pleguen eta beste agiri batzuen gaineko errekurtsioek jarraitzen diote (% 28). "Batzuk" atalak errekurtsioek jorratu ezin dituzten gaiak barne hartzen ditu eta, horrenbestez, kasuan kasuko errekurtsio horiek ez ziren onartu.





IV.5.- 2015ean emandako ebazpenen izaera

Ondorengo grafikoan 2015ean emandako ebazpenen izaera jaso da eta atzera bota diren eta balioetsi diren errekurtsoen ehunekoak, 2014. urtearekin alderatuta, funtsezko aldaketarik izan ez duela gailendu da. Onartu ez diren errekurtsoen ehunekoari dagokionez, 2014an txikitu egin zen (%10) baina 2015ean handitu egin da (%19).




IV.6.- Aurkeztutako errekurtsuak, hilabetearen eta urtearen arabera

Hona hemen, grafiko batean, KEAO jardunean izan den urteetan urte bakoitzean eta hilabete bakoitzean aurkeztutako errekurtsuen kopuruak (2011tik 2015era):



Errekurtsoak hilabetearen eta urtearen arabera



IV.7.- Ebazpena emateko epea

2015ean ebazpenak eta erreklamazioak ebazteko batez besteko epea 31 egun naturalekoa izan da. Epe hori errekurtsoa edo erreklamazioa KEAOn erregistratzen denetik hasten da zenbatzen (alegia, errekurtsoa organoaren erregistroan aurkezten den eguna edo kontratazio-organoak bidalitako errekurtsoa jasotzen den eguna), ebazpenaren sinaduraren datara arte. Ebazpena emateko batez besteko epea 5 egun natural murriztu da, 2014. urtearekin alderatuz gero.

IV.8.- Aurkeztutako administrazioarekiko auzi-errekurtsoak eta pronuntziamenduen izaera

2015eko abenduaren 31ra arte Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren aurrean aurkeztutako administrazioarekiko auzi-errekurtsoen kopurua eta pronuntziamendua jaso duten horiek zehaztu dira. Urtearen arabera taldekatzeko erabili den irizpidea: zer errekurtso bereziren ebazpena inpugnatzen den, errekurtso hori zer urtetan aurkeztu den.



2011. URTEA

■ Administrazioarekiko auzi-errekurtsoen guztizko kopurua:	5
■ Izaera	
■ Neurri baten baietsiak	2
■ Ezetsiak	2
■ Uko egindakoak	1
■ Pronuntziamenduen guztizko kopurua	5

2012. URTEA

■ Administrazioarekiko auzi-errekurtsoen guztizko kopurua:	3
■ Izaera	
■ Ezetsiak	2
■ Neurri baten baietsiak	1
■ Pronuntziamenduen guztizko kopurua	3

2013. URTEA

■ Administrazioarekiko auzi-errekurtsoen guztizko kopurua:	9
■ Izaera	
■ Ezetsiak	2
■ Uko egindakoak	3
■ Onartu gabeak	1
■ Baietsiak	3
■ Pronuntziamenduen guztizko kopurua	9

2014. URTEA

■ Administrazioarekiko auzi-errekurtsoen guztizko kopurua:	22
■ Izaera	
■ Uko egindakoak	6
■ Iraungitako prozedura	1



■ Baietsiak	7
■ Neurri batean baietsiak	1
■ Ezetsiak	3
■ Pronuntziamenduen guztizko kopurua	18
■ Ebatzi gabe	4

2015. URTEA

■ Administrazioarekiko auzi-errekurtsoen guztizko kopurua:	12
■ Izaera	
■ Uko egindakoak	2
■ Pronuntziamenduen guztizko kopurua	2
■ Ebatzi gabe	10

Honako koadro hauetan 2016ko martxoaren 31ra arte aurkeztutako administrazioarekiko auzi-errekurtsoen guztizko kopurua azalduko da. Aipatu datara arte KEAOn aurrean aurkeztutako errekurtsoen guztizkoaren gaineko ehunekoa, urtearen arabera, honako hau da:

2011-2015 aldia

	Admin. Auzi-errek. Guztizko kopurua	Kontratuen ing. Errk. Guztizko kop.	%
2011	5	68	7,35
2012	3	125	2,40
2013	9	128	7,03
2014	22	169	13,02
2015	12	168	7,14
TOTAL	51	658	7,75

2016ko martxoaren 31ra arte KEAOk ezagututako pronuntziamendu judzialen izaera, urteen arabera, hauxe da:



Izaera	2011	2012	2013	2014	2015	TOTAL	Admin. Auzi- errek. barruko %	% Kontratuen ing. Errk. barruko (658)
Baietsiak	0	0	3	7	0	10	19,61	1,52
Neurri batean baietsiak	2	1	0	1	0	4	7,84	0,61
Ezetzia	2	2	2	3	0	9	17,65	1,37
Atzera eraginak	1	0	3	6	2	12	23,53	1,82
Onartu gabekoak	0	0	1	0	0	1	1,96	0,15
Prozegura iraungita	0	0	0	1	0	1	1,96	0,15
Erabakirik ez	0	0	0	4	10	14	27,45	2,13
GUZTIRA	5	3	9	22	12	51	100,00	

Aurkeztutako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa guztiz edo neurri batean baiesten duten pronuntziamendu judzialen guztizko kopurua aurkeztutako deuseztasun-errekurtso berezien, -erreklamazioen eta -kontuen guztizko kopuruarekin erlazionatuz, antzeman dugu KEAOn pronuntziamenduen % 97,87 ez direla errekurritu edo errekurritu egin direla eta horien inguruan berrespena ekarri duten pronuntziamendu judzialak eman direla (berrespentasa). Ehuneko hori aurkeztutako deuseztasun-errekurtso berezien, -erreklamazioen eta -kontuen kopuruari buruz ari da eta ez ebazpen-kopuruari buruz (txikiagoa da horietakoren batek pilatutako errekurtsoak dituelako). Urteen arabera, ehunekoa honako hau da:

■ 2011. urtea	% 97,06
■ 2012. urtea	% 99,20
■ 2013. urtea	% 97,66
■ 2014. urtea	% 95,27
■ 2015. urtea	% 100,00

V.- 2015eko EBAZPENIK GARRANTZITSUENAK

2015eko ebazpen garrantzitsuenen laburpena, baita Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren aurrean errekurritutako KEAOn ebazpenen zerrenda eta horien gainean emandako pronuntziamenduak ere, "Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoko doktrina" izeneko agirian gehitu dira, KEAOn webguneko "Memoriak eta doktrina" izeneko atalean jasota dagoena.